

Ordainketak errepikariak izango dira, hilero diru kopuru berdina ordaindu behar delako. Hurrengo hilean kulturtekan jarraitu nahi ez badute, aukera dute ordainketa eta asistentzia bertan behera uzteko. Prezioei dagokienez, prezio finkoak dira, ez dauka merkatuaren aldaketekin loturarik.

Bezeroak erakartzeko, gaur egun teknologiak duen garrantzia kontuan izan dugu, beraz, sare sozialetan publizitatea jartzea erabaki dugu, doako plataformetan, instagramen adibidez.

Horrez gain, Durangotik kartelak itsatsiko ditugu, gure proiektuari buruzko informazio pixka bat azaltzen, eskoletan eta parkeetan itsatsi nahi ditugu, gure berezoak gehiago erabiltzen dituzten lekuetan.

Kultutekaren hileko prezioa baxua izango da, 15 euro orduko. Erabiltzaileak udaletxetik eta Eusko Jaurlaritzatik subentzioak jaso ahal izango dituztelako, denon eskura egoteko. Gutxiengo bezero kopurua 75-80 izango dira alokairua eta lau langileen soldata ordaindu ahal izateko. Kasu berezietan familia ugarietan adibidez, egoera aztertuko dugu eta horri irtenbide bat aterako diogu (10 eurotako deskontuak egongo dira). Gure enpresa merkea izango da, horrela pertsona guztientzat eskuragarri egongo den zerbitzu bat izango da.

Umeak	Orduak	Prezioa
1	2	30 €
2	1	30 €
4	1	60 €
75	1	1.125 €
2 (familia ugaria)	1	20 € (10 €ko deskontua familia ugaria delako)
...